



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailak 30**

**Vitoria-Gasteiz, 30 de julio de 2024**

## Lehendakaritza

### **LEHENDAKARIAK XIII. LEGEGINTZALDIKO GOBERNU PROGRAMA AURKEZTU DU, ETA LEGEBILTZARRERA BIDALIKO DA**

Imanol Pradales lehendakariak XIII. Legegintzaldiko Gobernu Programa aurkeztu dio gaur Gobernu Kontseiluari, ondoren Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko.

Programak 2024ko ekainaren 19an Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco-k eta Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerrak sinatutako koalizio-akordioa hartzen du erreferentziazat, legegintzaldi honetarako jardueresparrua eta lehentasunak zehazten baititu.

Horrela, gaur aurkeztutako testuak aipatutako koalizio-akordioa garatu eta zehazten du, eta 2024-2028 aldian garatu beharreko konpromisoak eta ekimenak jasotzen ditu.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK TXIMIST PROIEKTUAREN BITARTEZ GAZTEAK SARE SOZIALAK EUSKARAZ KONTSUMITZERA ERAKARRI NAHI DITU**

Gobernu Kontseiluak 150.000 euroko dirulaguntza bat onartu du gaur “Arabako Ikusentzunezko SLU” entitatearentzat “Tximist” izeneko proiektuaren bitartez euskarazko edukiak sare sozialetetara (youtube, instagram, tiktok) eta plataformetara (Spotify) hurbiltzeko. Helburua 18 eta 25 urte bitarteko gazteen artean euskaraz kontsumitzeko ohiturak sustatzea da, izan ere, eremu digitala eta aisialdia euskalduntzea dira, besteak beste, datozen urteetako erronkak.

Tximist egitasmoaren bidez, ikus-entzunezko berriak sortuko dira audientzia gazteari zuzenduta. Honako hauek dira aurreikusitako lanak:

- Aktualitatea eta kultur aisialdirako edukiak gazte euskaldunentzat egokitu Instagram eta Tiktok baliatuz.
- Gazte euskaldunen bila atera eta gazteak aipatu diren sareen kanaletara hurbildu, gertuko harremana eta iritzia emateko espazioa eskainiko zaielarik.
- Ahotsa eta foroa eskaini gazteei, podcast eta bideopocastetan murgilduz
- Aipaturiko lanak egiten laguntzeko, harrobia sortu Gasteizen. Ikus-entzunezko edota teknikari ikasketak euskaraz burutu dituzten gazte gasteiztarrentzako hedabide batean lanean aritzeko aukerak landu.

## Ekonomia, Lana eta Enplegua

### **EUSKO JAURLARITZAK 685.000 EUROKO DIRULAGUNTZA EMANGO DU ETORKINEN ERREGULARIZAZIOA ETA LANERATZEA ERRAZTEKO**

Gobernu Kontseiluak, Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburu Mikel Torresek proposatuta, Sartu Taldeari dirulaguntza bat ematea onartu du gaur, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten eta laneratu aurreko egoeran dauden etorkinen erregularizazioa eta laneratzea errazteko ibilbide-proiektua ezartzeko.

W+ proiektua Inkluriorako V. Euskal Planaren 2023-2024 aldirako Plan Operatiboan jasotako ekimen esperimentaletako bat da. Helburua da lan-aurreko egoeran dauden etorkinak gizarteratzen eta laneratzen eta erregularizatzen laguntzea, haien administrazio-egoera gizarte-sustraitzearen prozeduraren bidez erregularizatzeko azken helburuarekin.

Prozedura dirulaguntza zuzenaren bidez egingo da, interes publiko, sozial, ekonomiko eta humanitarioko arrazoiengatik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak baimentzen duen bezala, eta Gobernu Kontseiluaren eskumena da ematea, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen 20/2023 Legearen arabera.

Interes publiko, sozial eta ekonomikoko arrazoiak eta salbuespenezko inguruabarrak aurre egin beharreko erronkaren garrantzian eta izaera estrategiko eta humanitarioan eta erakunde onuradunak proiektua gauzatzeko duen egokitasunean oinarritzen dira.

W+ proiektuak prestakuntzaren, laguntzaren eta enplegarritasunaren arloetan esku hartzen du, marjinalitate-, pobrezia- eta bazterkeria-egoeretatik irtetea hobetzeko eta errazteko neurriak aktibatuz. Kontuan hartu da, gainera, erregularizazioa ezinbesteko bitartekoa dela laneratzea helburu duen helburua lortzeko, jarduera bikoitz baten bidez: alde batetik, pertsonekin, aurretiko kualifikazioa hobetzeko eta beharrezko gaitasunak eskuratzeko, eta, bestetik, enpresekin, pertsona ezagutzeko eta lan-kontratua egiteko konpromisoa hartzeko. Horrela, prozesu bikoitz horren bidez, pertsonaren gizarteratzea eta laneratzea bultzatuko da.

Dirulaguntza jasoko duen erakundeak, Sartu Taldeak, gizarte-zerbitzuen, gizarteratzearen eta enpleguaren sektorean jarduten du 1988tik, marjinazioaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko, pertsonen gizarteratzea eta laneratzea erraztuko duten beharrezko aldaketak sustatuz, komunitate integratzaileak eraikitzeko. Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak beharrezkotzat jotzen du proiektu hau garatzea, kontuan hartuta hartzaileen kalteberatasun-egoera eta bazterketa-arriskua.

## Ekonomia, Lana eta Enplegua

### **ERAKUNDE SINDIKALEN FUNTZIONAMENDURAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA, HAIEN ORDEZKAGARRITASUNAREN ARABERA**

Gobernu Kontseiluak, Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, sindikatuen funtzionamendurako dirulaguntzen deialdiaren oinarriak onartu ditu gaur, haien ordezkaritasunaren arabera. Deialdiaren zenbatekoa 1.076.791 eurokoa da.

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza duten erakunde sindikalak sartu ahal izango dira, eta laguntzak jarduera sindikalaren gastu arruntak finantzatzeko erabili beharko dira, bai eta bulego eta zerbitzuen antolamendurako eta funtzionamendurako beharrezkoak diren gastu guztiak finantzatzeko ere.

## Hezkuntza

### EUSKO JAURLARITZAK MILIOI BAT EURO BIDERATUKO DITU HEZKUNTZA-KOMUNITATEKO ELKARTEENTZAT

- **Gobernantzari eta parte-hartzeari buruz Hezkuntza Legeak jasotzen dituen alderdiekin lerrokatutako laguntza-programa honek Guraso Elkarteak, Guraso Elkarten federazioak eta irakaskuntza-kooperatibak finantzatzen ditu**

Eusko Jaurlaritza hezkuntza-komunitatea osatzen duten hainbat elkarterentzako laguntzetarako deialdia egiten duen Agindua onartu du Gobernu Kontseiluan, elkarte horiek garatzen dituzten prestakuntza-jarduerak diruz laguntzeko. Hezkuntzako sailburuak 1.033.000 euro biltzen dituen Agindua proposatu du, azken batean, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea eta hezkuntza-sistemarekiko konpromisoa finantzatzeko.

Deialdia honako hauei zuzenduta dago: Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteei, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako (Haur Hezkuntzako lehen ziklokoak izan ezik) ikasleen guraso-elkarteei, unibertsitatez kanpoko ikasleen guraso-elkarten federazio eta konfederazioei, eta unibertsitatez kanpoko ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibei.

Aurreko ekitaldietan, laguntza horiek hiru deialditan banatzen ziren, erakunde hartzailearen arabera. Hurrengo ekitaldirako aginduak aurreko deialdiak bateratzen ditu, helburuaren arabera, eta ez erakunde onuradunen arabera. Ondorioz, Agindu honen bidez honako hauei laguntza emateko deialdia egiten da: Helduen Hezkuntzako (HHE) ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteei; unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako (haur-hezkuntzako lehen ziklokoak izan ezik) ikasleen guraso-elkarteei; unibertsitatez kanpoko ikasleen guraso-elkarten federazioei eta konfederazioei, eta irakaskuntza-kooperatibei.

Guraso Elkarteentzako dirulaguntzak: 650.000 € (150.000 € gehiago emango dira)

Guraso Elkarten Federazioentzako dirulaguntzak: 350.000 €

Irakaskuntza-kooperatibentzako dirulaguntzak: 33.000 €

Guztira: 1.033.000 €

### **Gizartearen inplikazioa**

EAEko hezkuntza-sistemak, bere helburuak lortzeko, inplikaturako gizarte-sektore guztien parte-hartzea eta konplizitatea behar ditu. Horrela, gurasoek edo legezko tutoreek ikasleen eskola-hezkuntzaren jarraipena egiteko eta horretan parte hartzeko eskubidea dute.

Familien parte-hartze aktibo horrek ematen dio indarra hezkuntza-komunitateari, bai zuzenean, bai hura osatzen duten elkarten bitartez, eta hezkuntza-

komunitateak ikastetxearen jardueran duen inplikazioa areagotzen den heinean, indartu egiten da ikastetxe horren hezkuntza-proiektua.

Alde horretatik, laguntzen deialdi honen helburua familien parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea da, haien elkarrekin, jardueraren osagarriak antolatzen. Logikoa denez, jardueraren horiek koherenteak izan beharko dute ikastetxearen hezkuntza-proiektuarekin, eta gurasoentzako eta tutoreentzako nahiz ikasleentzako beraientzako prestakuntza-jarduerak txertatu beharko dituzte.

Hezkuntza Sailaren prestakuntza-estrategiarekin bat etorriz, prestakuntza-jarduerak, ikuspegi inklusibo eta hezkidetzaille batetik, ikasleen osasun emozionala eta bizikidetzaren positiboa hobetzera, kirol-jardueran nahiz aisialdian euskararen erabilera sustatzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztien gaitasun digitala hobetzera eta eskola-komunitateko kide guztiak motibatuzera bideratuko dira, helburu komuna lortzeko, hau da, ikasleen hezkuntza-arrakasta eta arrakasta pertsonala lortzeko.



## Hezkuntza

### HEZKUNTZAK MANTENDU EGIN DITU LHN HIZKUNTZEN IKASKUNTZA INDARTZEKO LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du 2024-2025 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroak egiteko dirulaguntzak jasotzeko deialdia egiten duen Agindua.

100.000 euroko inbertsioarekin, deialdi horren bidez Lanbide Heziketako zikloetako ikasleei atzerriko hizkuntzako ikastaroak emateko —ikastetxean bertan eta eskola-orduetatik kanpo— dirulaguntzak eskaintzen dira. Ikastaro horiek gutxienez 60 ordukoak eta gehienez 100 ordukoak izan beharko dute. Gainera, ikastetxe bertako irakasleek eman beharko dituzte. Deialdi honen bidez diruz lagundu daitekeen talde bat eratzeko, gutxienez 6 ikasle beharko dira, eta gehienez 20, hizkuntza bakoitzeko (modalitate presentzian). Ikastaroak antolatzen dituzten itunpeko ikastetxeetan matrikulatutako erdi-mailako eta goi-mailako zikloetako ikasleek parte hartu ahal izango dute.

Hizkuntzen ezagutza funtsezkoa da ikasleen enplegarritasun- eta mugikortasun-mailak hobetzeko; izan ere, nazioarteko merkatuetan jarduteko gai diren gero eta profesional gehiago eskatzen dituzte enpresek.

Dokumentazioa elektronikoki aurkeztu beharko da helbide honetan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabeteko epean: <https://www.euskadi.eus/servicios/0097513>.



## Hezkuntza

### MILIOI BAT EURO INGURU EUSKARAZKO IKASMATERIALA SORTZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntzako sailburuak proposatutakoari jarraituz, unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-mailetan euskarazko ikasmaterialak ekoizteko laguntzetarako deialdia egiten duen Agindua onartu du gaurko bileran (EIMA deialdia). Deialdi horrek 985.000 euroko zenbateko ekonomikoa du.

EIMA deialdiak hiru modalitatetan euskarazko ikasmaterialak sortzeko dirulaguntzak ematen ditu:

EIMA 1: material didaktiko inprimatuen edizio-kostuetarako. 500.000 euro

EIMA 2.0: euskarazko material didaktiko digitaletarako. 400.000 euro

EIMA 4: material didaktiko inprimatua sortzeko. 85.000 euro

Deialdi honek diruz laguntzen ditu euskara hutsean sortu eta egindako material didaktikoak. Hala ere, salbuespen gisa, eta bakoitzaren ezaugarrien arabera, euskarazko eta gaztelaniazko ikasmaterialek —hala nola A ereduan euskara irakasteko metodoek, hiztegi elebidunek edo eleaniztunek— ere jaso ahal izango dute deialdi honen bidez ematen den laguntza. EIMA 1 modalitateak itzulpenak eta egokitzapenak ere jasotzen ditu.

Eskabideak elektronikoki aurkeztu beharko dira Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa: [https://www.euskadi.eus/agrupacion\\_servicios/2024/eima/y22-izapide/es](https://www.euskadi.eus/agrupacion_servicios/2024/eima/y22-izapide/es). Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, laguntza-lerroaren Agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## Osasuna

### OSASUN SAILAK JARDUERA FISIKOA SUSTATZEKO ETA ESKOLA- UMEEN SEDENTARISMOA MURRIZTEKO LAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DU

- **Helburua, txiki-txikitatik ariketak osasunean duen eragin onuragarriari buruzko kontzientzia-maila handitzea da**

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio Osasuneko sailburu Alberto Martínezen Aginduari. Agindu horren bidez, Euskadiko elkarte eta kooperatibei 2024-2025 ikasturtean jarduera fisikoa sustatzeko eta sedentarismoa murrizteko partaidetza-proiektuak garatzeko ematen zaizkien dirulaguntzen deialdia egin da, ikasleen osasuna eta autonomia hobetzeko.

Eskola-ingurunean jarduera fisikoa sustatzea eta sedentarismoa murriztea da Osasun Sailaren ildo estrategikoetako bat, **2030eko Osasun Planean** esplizituki jasotzen dena, jarduera fisikoak osasunaren mesedetan duen garrantziari (fisikoa zein psikikoa) eta memoria eta errendimendu akademikoa hobetzeko edo pertsonen arteko harremanak bultzatzeko duen ahalmenari buruzko kontzientziazio-maila txiki-txikitatik handitzeko duen gaitasunagatik.

Laguntzak 300.000 eurokoak dira, eta **Ikasleen Gurasoen Elkarteei (IGE) eta Euskadiko Irakaskuntza Kooperatibei** irekita daude, honako hauek finantzatzeko:

- **Eskola-bideak** sortzeko eta dinamizatzeko proiektu parte-hartzaileak, hiri-espazioek joan-etorri aktibo eta segurueterako eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatzera bideratuak.
- Parte hartzeko ekimenak, **eskolako jolastokiak** ikasteko, jolasteko eta mugitzeko espazio inklusibo bihurtzeko eta/edo dinamizatzeko, bai eta kalitatezko harremanak eta esperientziak eraikitzeko ere, bai eskola-orduetan, bai eskola-orduetatik kanpo, berdintasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta (kulturala, etnikoa, etikoa, sexuala, funtzionala eta bestelakoak), eta ikasleen eta haien familien beharretara eta interesetara egokituta.
- **Familiako** jarduera fisikoaren praktika erregularra sustatzera bideratutako jarduerak, hala nola mendira egindako txangoak, bizikletaz egindako irteerak, paseoak patinetan edo familian egindako jolas-jarduerak, besteak beste.

Eskabideak telematikoki bakarrik aurkezteko epea hilabetekoa da, deialdi hau EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

### **EUSKO IKASKUNTZARI DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA ONARTU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRI TXIKIETAN MERKATARITZA SUSTATZEKO**

Gobernu Kontseiluak onartu du Eusko Jaurlaritzako **Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak** 30.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea **Eusko Ikaskuntzari**. Laguntza hori Euskal Autonomia Erkidegoko herri txikietan merkataritza bultzatuko duten estrategiak elkarrekin sortzeko da. Ekimena tokiko merkataritza-sarea indartzeko eta soluzio berritzaileen bidez ekintzaitza berriak sustatzeko etengabeko ahaleginaren parte da.

Helburu nagusia da **eskualde-estrategia** integratuak **garatzea eta egikaritzea, egungo merkataritza sendotzeko eta ekintzaitza berriak sustatzeko**. Helburu espezifikoaren artean daude hainbat eskualdetan errepika daitezkeen proiektu pilotuak diseinatzea eta tokiko merkatarien arteko elkarreragina sustatzea.

Proiektuaren faseak honako hauek dira: hasierako prestakuntza eta diagnostikoa, funtsezko eragileen mapaketa eta partaidetza-foroen sorrera, baterako sorkuntzako eta baterako analisiko tailerrak, estrategiak formulatzea eta baliozkotzea, eta komunikazioa eta zabalkundea.

Ekimen honek 2023an Eusko Ikaskuntzarekin hasitako lankidetzari jarraipena ematen dio, lankidetzak horrek Euskal Autonomia Erkidegoko herri txikietako tokiko merkataritzaren azterketa eginga baitu. Azterketa hori 2023ko urriaren 31ko Gobernu Kontseiluan onartu zen, eta merkataritzak herri horietan egun duen egoera ezagutzea eta hura hobetzeko politika espezifikoak diseinatzea izan zuen helburu.

Dirulaguntza berri horrekin, Eusko Jaurlaritzak **herri txikietako merkataritzaren garapenarekin eta jasangarritasunarekin** duen konpromisoa indartzen du, herri horiek eskualdean jarduera ekonomiko eta sozialaren ezinbesteko gune izaten jarrai dezaten ziurtatuz.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

### MAHASTIZAINZAKO ETA ARDOGINTZAKO ESKU-HARTZE SEKTORIALAREN PROGRAMA HIRUGARREN HERRIALDEETAN SUSTATZEKO ETA KOMUNIKATZEKO LAGUNTZETARAKO DEIALDIA EGINGO DU EUSKO JAURLARITZAK

- **NBEFtik sei milioi euroko aurreikuspena 2025erako**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak **Mahastizaintza eta Ardogintzako Esku-hartze Sektorialaren** (MAES Sustapena) **programa sustatzeko eta hirugarren herrialdeetan jakinarazteko 2025 urterako NBEFko sei milioi euroko laguntza deialdiari.**

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak adierazitakoaren arabera, elikagai-industrien arloan eskumena duen zuzendaritzaren 2025eko aurrekontuetan ez da laguntza horretarako zuzkidura ekonomikorik aurreikusten, **NBEF** funtsek finantzatzen baitute osorik, eta, beraz, erakunde ordaintzaileak kudeatuko ditu ordainketak.

**Deialdia Euskal Autonomia Erkidegoko 2025 Aurrekontu Proiektuarekin** batera aurkeztuko den memorian sartuko da. Bertan, 2025eko ekitaldian egitea aurreikusten den aurreikuspena egingo da: kalkuluen arabera, 12.000.000 € izango da, eta onuradunek finantzaketaren % 50 jarriko dute, **NBEF funtsetik 6.000.000 € erabilita.**

Europako Batzordearen, Europako Parlamentuaren eta Europar Batasuneko Kontseiluaren erregelamenduak arauak ezartzen ditu **Nekazaritza Politika Bateratuaren** esparruan estatu kideek egin behar dituzten plan estrategikoei laguntzeko (NPBren plan estrategikoak), Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) kontura finantzatuta. **Mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorean esku-hartzea nahitaezkoa da kide guztientzat, eta mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorean hainbat esku-hartze mota egitea proposatzen du, Batasunaren finantza-laguntzarekin.**

Estatuan, Espainiako 2023-2027 aldirako **Nekazaritza Politika Bateratuaren** (NPB) **Plan Estrategiko Nazionala** argitaratu da. Plan horren helburua nekazaritzaren, elikaduraren eta landa-eremuen **garapen iraunkorra** da, gizartearen elikadura-segurtasuna bermatzeko, sektore lehiakor baten eta landa-ingurune bizi baten bidez.

## NPBPE

**Nekazaritza Politika Bateratuari buruzko araudi berria** indarrean sartzearekin batera, Espainiako mahastizaintza eta ardogintza sektoreari laguntzeko programak (PASVE) NPBren gainerako eremuetatik isolatutako neurria izateari utziko dio, eta NPBren Plan Estrategikoaren parte izango da, beste esku-hartze bat balitz bezala, eta Mahastizaintza eta Ardogintzako Esku-hartze Sektoriala (MAES) izenez ezagutu da. Estatuan, Errege Dekretu bat argitaratu zen (2022), **Mahastizaintzako eta Ardogintzako Esku-hartze Sektoriala** arautzen duena, Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren esparruan.

**Autonomia-eremuan**, duela gutxi argitaratu da 66/2024 Dekretua, 2024ko maiatzaren 28koa, **Nekazaritza Politika Bateratuaren 2023-2027 Plan Estrategikoa Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko eta landa-eremuen ezaugarriak zehazteko dena.**

Gaur onartutako aginduak urriaren 25eko 905/2022 Errege Dekretuan aurreikusitako laguntzetarako deialdia egiten du, baina laguntza horien gastua NBEF 2026 aurrekontuari egotziko zaio. Agindu horren eraginkortasuna Euskal Autonomia Erkidegoko 2025erako Aurrekontu Orokorretan kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean geratuko da.

## Ekintza motak

Laguntza horietarako eskaerak ardogintzaren sektorearen **lehiakortasuna hobetzeko** eta merkatuak **ireki**, dibertsifikatu eta sendotzeko ekintza bat edo batzuk izan daitezke. 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean garatu beharko dira. Hirugarren herrialde bateko merkatu bakoitzeko laguntzaren gehieneko iraupena urtebetekoa izango da, kalitate bereiziko figura batek (JDB edo AGB) babestutako ardoetarako adierazitakoa izan ezik. JDB edo AGB duten ardoen merkataritza-irteerak sendotzeko hirugarren herrialdeetan egindako sustapen- eta komunikazio-ekintzek gehienez ere hiru urteko iraupena izan dezakete, eta ezin da luzatu.

## Onuradunak

Hirugarren herrialdeetan sustapen-neurriak finantzatzeko eskabideak honako hauek aurkeztu ahal izango dituzte: **baldintzak betetzen dituzten ardogintza-enpresek; mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizleen erakundeek** eta mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizleen erakundeen elkarteek; **lanbideartekoek**; nagusiki ardoaren sektorean jarduten duten **profesionalek**, baldin eta estatuan aitortuta badaude eta estatutu-helburuen artean sustapen-jarduerak egiten badituzte; adierazpen geografiko babestuak eta jatorri-deitura babestuak **kudeatzeko** eta ordezkatzeko **organoek**, bai eta beren elkarteek ere; ardoa sustatzeko eta merkaturatzeko ekimenak garatzen dituzten bi ekoizle edo gehiagoren aldi baterako elkarteek edo elkarte iraunkorrek; haiek edo beren bazkideek egindako ardoak merkaturatzen dituzten **kooperatibak**; mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreko enpresen partaidetza duten irabazi asmorik gabeko **elkarteak**, baldin eta beren helburuen artean ardoak kanpoan



sustatzea badute; hirugarren herrialdeetan produktuak eta merkatuak sustatzeko eta komunikatzeko jarduerak garatzeko **legez ezarritako eskumena duten erakunde publikoak**, baldin eta erakunde hori laguntzaren onuradun bakarra ez bada.

### **Produktu eta herrialde onargarriak**

Sustapeneko esku-hartzearen xede izan daitezke **zuzeneko kontsumorako kalitatezko produktuak**, baldin eta kategoria hauetakoren batekoak badira: **jatorri-deitura babestu** baten babespeko ardoak; **adierazpen geografiko babestu** baten babespeko ardoak; eta **ardotarako mahats-barietatea edo barietateak** adierazten dituzten ardoak.

Programak argi eta garbi definituta egongo dira, eta honako hauek zehaztuko dira: **helburu zehatzak**, helburu duten **hirugarren herrialdeko edo herrialdeetako** hirugarren herrialdea edo merkatuak, **ardo-motak**, egingo diren ekintzak eta azpiekintzak eta horietako bakoitzaren gutxi gorabeherako kostuak. Onuradunak proposatutako kostuek ez dituztela gainditzen merkatuko prezio normalak bermatuko du, eta kostuen moderazioa betetzen dela. Kostuak justifikatzeko, enpresa independenteen aurrekontuak aurkeztuko zaizkio onuradunari.

### **Eskaerak eta epeak**

Hirugarren herrialdeetan ardogintzako produktuak sustatzeko eta komunikatzeko ekintzetarako eta programetarako laguntzen eskabideak agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztuko dira, 2024ko irailaren 15a baino lehen.

## Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza

### GOBERNU KONTSEILUAK ERLEZAINZAKO PRODUKTUEN EKOIZPENA ETA MERKATURATZEA HOBETZEKO LAGUNTZAK ONARTU DITU

- **Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoa 2023-2027**
- **NBBEFren kontura, 2024rako 92.000 euro izango dira gehienez**

Jaurlaritzaren Kontseiluak Amaia Barredo Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren agindua onartu du. Agindu horren bidez, **erlezaintzarako laguntzak arautzeko oinarriak** onartu dira, 2023ko abuztuaren 1etik 2024ko uztailaren 31ra bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2023-2027ko Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren esparruan. 2024 urterako, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsaren kontura, 92.054,07 euro izango dira gehienez.

Europako erakundeek erlezaintza-sektorean egin daitezkeen **esku-hartze motak** eta esku-hartze horretarako Europar Batasunaren finantza-laguntza ezartzen dituzte, erle-produktuen ekoizpen- eta merkaturatze-baldintza orokorrak hobetzeko erle-programak egiteko, 2023tik 2027ra bitarteko aldirako **Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) Plan Estrategikoen** esparruan.

Esku-hartze horien bidez hainbat helburu orokor lortu nahi dira, hala nola epe luzera elikagaien segurtasuna bermatuko duen nekazaritza-sektore adimentsua, lehiakorra, erresilientea eta dibertsifikatua sustatzea; ingurumenaren babesa babestea eta indartzea, biodibertsitatea eta klimaren aldeko ekintza barne, eta Batasunaren ingurumen- eta klima-helburuak lortzen laguntzea, besteak beste, Parisko Akordioan hartutako konpromisoak eta **landa-eremuetako sare sozioekonomikoa indartzea**.

Diruz lagundu daitezkeen jardueren helburua **erlezaintzako produktu ekoizpena eta merkaturatzea hobetzea da**, Euskal Lurralde Historikoen lurralde-eremuan.

## Justizia eta Giza Eskubideak

**ELKARTE EDO FUNDAZIOEK MEMORIA HISTORIKOA  
BERRESKURATZEKO GARATZEN DITUZTEN PROIEKTUETARAKO  
112.500 EUROKO LAGUNTZA ONARTU DA**

Eusko Jaurlaritzak bide eman dio gaur memoria historikoa eta demokraziaren eta askatasunaren aldeko borroka, Euskal Autonomia Erkidegoan 1936-1977 aldian, berreskuratzeko, ikertzeko eta zabaltzeko proiektu espezifikoak finantzatzeko deialdiari. Deialdi hau 112.500 eurokoa da, eta memoria historikoan diharduten elkarte eta fundazioek gauzatutako ekimenak sustatzera bideratuta dago.

Laguntza-lerro honetarako eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, eta proiektu guztiek amaituta egon beharko dute 2024ko abenduaren 31rako.

Behin EHAAn argitaratuta, eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak izapidetzeko moduari buruzko zehaztapenak euskadi.eus egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri, eta Gogora Institutuaren webgunetik ere eskura daitezke.



## Presidencia

### **EL LEHENDAKARI PRESENTA EL PROGRAMA DE GOBIERNO DE LA XIII LEGISLATURA, QUE SERÁ REMITIDO AL PARLAMENTO**

El Lehendakari Imanol Pradales ha presentado hoy al Consejo de Gobierno el Programa de Gobierno de la XIII Legislatura, para su posterior remisión al Parlamento Vasco.

El Programa toma como base de referencia el Acuerdo de Coalición suscrito el 19 de junio de 2024, entre Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra, que determina el marco de actuación y las prioridades para la presente Legislatura.

Así, el texto hoy presentado desarrolla y concreta el Acuerdo de Coalición citado y recoge los compromisos e iniciativas a desarrollar a lo largo del periodo 2024-2028.

## Cultura y Política Lingüística

**EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
IMPULSARÁ ENTRE LOS Y LAS JÓVENES EL CONSUMO DE LAS REDES  
SOCIALES EN EUSKERA A TRAVÉS DEL PROYECTO TXIMIST**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy una subvención de 150.000 euros para la entidad "Arabako Ikusentzunezko SLU" a través del proyecto denominado "Tximist" para la difusión de contenidos en euskera en redes sociales (youtube, instagram, tiktok) y plataformas (Spotify). El objetivo es fomentar los hábitos de consumo en euskera entre las personas jóvenes de entre 18 y 25 años, ya que euskaldunizar el ámbito digital y del ocio son algunos de los retos de los próximos años.

A través del proyecto Tximist se crearán nuevos audiovisuales dirigidos a la audiencia joven. Los trabajos previstos son los siguientes:

- Adecuar los contenidos de ocio cultural y actualidad para personas jóvenes euskaldunes a través de Instagram y Tiktok.
- Buscar personas jóvenes euskaldunes y acercarles a los canales de las redes ofreciéndoles un contacto cercano y un espacio para opinar.
- Ofrecer voz y foro a las personas jóvenes, buceando en podcast y videopodcast
- Impulsar en Vitoria-Gasteiz la realización de los trabajos mencionados. Analizar las posibilidades de trabajar en un medio de comunicación de las y los jóvenes gasteiztarras que han realizado sus estudios audiovisuales y/o técnicos en euskera.

## Economía, Trabajo y Empleo

### **EL GOBIERNO VASCO SUBVENCIONA CON 685.000 EUROS UN PROYECTO PARA FACILITAR LA REGULARIZACIÓN E INCLUSIÓN LABORAL DE PERSONAS INMIGRANTES**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy a propuesta del vicelehendakari y consejero de Economía, Trabajo y Empleo, Mikel Torres, la concesión de una subvención a Sartu Taldea para la implementación del Proyecto W+, de itinerario para facilitar la regularización e inclusión laboral de personas inmigrantes en situación pre-laboral perceptoras de Renta de Garantía de Ingresos.

